

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI ZINEA

'Mary Poppins', berriro ere

Gaur eta bihar azkeneko ikusi ahal izango da *El Regreso de Mary Poppins* pelikula Biterin. Gaur, arratsaldeko 19:30etan jarriko dute, eta bihar, ikuslearen eguna denez, 16:30etan. ||

■ HERNANI ODOL EMATEA

Urteko aurreneko zita, asteartean

Aurreko asteartea jaieguna izan zenez, etziko izango da odola emateko urteko aurreneko zita. Hilero bezala, arratsaldeko 18:00etatik 20:30etara izango da, anbulategian. ||

■ HERNANI KAXKO ELKARTEA

Estimulazio Musikala, bueltan

Asteartean izango da bueltan Kaxko Elkarteak antolatutako Estimulazio Musikal Goiztiarraren tailerra. 0-3 urte bitarteko haurrentzat antolatzen dute, debalde, eta asteartean izaten da, goizeko 10:45etan hasita, Biterin. Izena-emateko: telefonoz, 608 193 701 edo emailaz, info@musikhazi.com. ||

■ HERNANI SAHARA

Egutegiak salgai, Sahara laguntzeko

Hernaniko Plaza Feministan jarri dituzte salgai, 7 eurotan, Sahara herriari laguntzeko egutegiak. Saharako argazkiekin osatu dira. Bertatik pasa edo telefonoz deitu daiteke: 943 33 70 17. ||

■ HERNANI ESKU PELOTA

Finala gaur, Altzan

Bi hernaniar izango dira gaur Altzako txapelketako finalean, biak aurrez aurre. Paul Ojuelek Asteasuko Urruzolarekin batera jokatuko du, Ioritz Arrieta eta Santxez astigarraren kontra. Eguerdiko 12:00etan hasita izango da Altzan, eta oso berdindua izatea espero dute. ||

■ HERNANI UDALA

Eskaerak, bihar arte

Hernaniko Udalak urtero ematen dituen alokairurako diru-laguntzak bihar arte eskatu ahal izango dira HZZn. Informazioa: www.hernani.eus. ||

■ HERNANI ERREGEAK

Goxoki eta opari zaparrada, Errege Magoek!

Gabonak borobiltzeko, Errege Magoen bisita jaso zuten atzo gauean gaztetxo eta helduek, tartean hernaniarrek. Horren aurretik, kalean zehar ibili ziren goxokiak eta muxuak banatzen.

MAGIAK hartu zituen etxe eta kaleak atzo, Gabonetako ospakizunei agur esateko. Errege Magoen bisita jaso baitzuten hernaniarrek, euren opariak jaso aurretik.

Urtero bezala, Hernaniko Merkatari eta ostalarien Berririk elkarteak antolatu zuen. Aurrena, bazkalondoren, zaharren egoitzan daudenak bisitu zituzten, solairuz solairu, eta ondoren egin zuten kale buelta, herrian zehar.

Urbieta kaletik abiatu ziren, urtero bezala, eta Plazan bukatu zuten ibilbidea. Bertan, Erregeei azken eskaerak egiteko aukera izan zuten Hernaniko gaztetxoek, baita haien muxua jasotzeko ere.

Sorpresarik haundiena, ordea, gaur jaso dute etxeke txikienek, Gabonetako oporrei agur esateko. ||



Goxokiak bota eta bota aritu ziren Errege Magoak ibilbide osoan zehar.

■ HERNANI KONTRAKANTXA GAZTETXEA

Elkartasun kontzertuak, hurrengo ostiralean

Orreaga 778, Kaleko Urdangak, Perlata eta DJ Dxpek eskainiko dituzte elkartasun kontzertuak, «Hernaniko gazte mugimenduko bi kide epaituak» izango direlako. Gaueko 21:30etan izango dira.

ELKARTASUN kontzertuak antolatu ditu Hernaniko Kontraktantxa gaztetxeak hurrengo ostiralerako. Gaueko 21:30etan hasiko dira, eta lau talderekin gozatu ahal izango da: Orreaga 778, Kaleko Urdangak, Perlata eta DJ Dxpe.

Sarrerak egunean bertan eskuratu ahal izango dira,

gaztetxearen atarian, 5 euroren truke.

Epaikei aurre egiteko, jasotako dirua

Elkartasun kontzertua izango da, «Hernaniko gazte mugimenduko 2 kide epaituak» izango direlako, nahiz eta oraindik «epaiketa dataren

Polaina eta Mirandak irabazi zuten Urte zaharreko mus txapalketa.

jakinarazpenik ez dagoen».

Hori horrela, «epaikearen gastuei aurre egiteko», jaialdia antolatu dute Kontraktantxa

gaztetxeak eta Urrunegik, eta horretarako bideratuko dute jasotako dirua.

Mus txapelketa, bukatzeko
Mus txapelketa egin zuten Kontraktantxa gaztetxean urtea bukatzeko, eta Ander Polaina eta Mikel Miranda izan ziren garaile. ||



Obradore nagusia Akarregin
Akarregi poligonoa 14A-2
DENDA, KUTIXIAK ETA KAFETEGIA
Orduetgia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00
Jaiegunetan: 7:00-14:30

Denda herriko kaxkoan
Lizeaga kalea 4
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN
Orduetgia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00
Jaiegunetan: 7:00-14:00

Ogi egin berria
beti zure eskura



ADARRAGA
Konfitegia
Pasteldegia

Urbieta Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10



OINDI
taberna
NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509



Zorionak
Julen
Goicoechea
Benavides!

7urte

TAXIAK: 943 550093 | **UDALTAINGOA:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 / **Egunez:** Tanco URNIETA Idiazabal, 39 **943 550942** / **Gauz:** Aldabe Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani)

EGURALDIA **GAUR** Ez da aldaketa handirik espero. Zeru oskarbi edo laino guberekin mantenduko da; gauean, behe-lainoak agertu daitezke. Hotza egingo du, baita izotza ere. **Min.-1° / Max.10°**

BIHAR Lainoak gailenduz joango dira egunak aurrera egin ahala, zerua lainotuta geratu arte. Euria ere egin dezake. Temperatura minimoak oso baxuak izango dira. **Min.0° / Max.7°**

HERNANI GOIZ EGUZKI



Kontzertu ederrarekin gozatu zuten Goiz Eguzki egoitzara bertaratutakoek.

Urteberria alaitzen, Goiz Eguzki abesbatza

Abesten hasi ohi du urtea jubilatuen egoitzako Goiz Eguzki abesbatzak, eta halaxe egin du aurten ere. Kontzertu berezia eskaini zuen egoitzaren areto nagusian, urteari ongietorria emateko; era berean, harre-
ra ederra egin zieten haiei Goiz Eguzkiko bazkide eta taldearen jarraitzaileek. Gabonetako hamabi abesti abestu zituzten, Jesus Huegun eta Javier Zubimendiren zuzendaritzapean. ||

ASTIGARRAGA-HERNANI ESKU PELOTA

Hernani eta Astigarraga lehian, finalerako

Gipuzkoako buruz buruko trinkete txapelketan murgilduta dabilta Ekain eta Eñaut Lizeaga anai astigarrak, kadete mailan. Igandean Irurako Ametsa trinketean jokatu zituzten final laurdenak, eta biek lortu zuten garaipena. Horrela, finalerdietarako pasea lortu dute. Urtarrilaren 13ko asteburuan jokatuko dituzte finalerdi horiek. Hain zuzen, Unax Uitz eta Anartz Oartzabal hemaniarrak izango dituzte aurrez aurre, hauek ere final laurdenetan arerioak gainditu baitzituzten. Kasu honetan, hemaniarrak izan zituzten aurkari, baita ere; Uitzik 30-13 irabazi zion Jon Jarari, eta Oartzabalek 30-28, Xabier Apaolazari. Jubenilei dagokienez, Mikel Lasa finalerdietarako sailkatu da, 35-32 irabazita, eta seniorretan, Endika Arizmendik galdu egin zuen final laurdenekoa, 40-30, Pagazperen aurrean. ||

URUMEA KRONIKA

Lana bilatzeko atala, larunbatero

Larunbateko Zubi-Lana atalean doan jarri dezakete iragarkia lan bila dabilzanek; deitu, 943 33 08 99, edo idatzi ana@kronika.eus helbidera ostirala 12:00ak baino lehen. ||

Eskelak

† **JOSEFA IRAOLA MINER**
ANDREA
(Claudio Bereciartua jaunaren alarguna)
Herenegun hil zen, 89 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Seme-alabak: Pedro eta Nekane Goikoetxea, Berna eta Daniel de la Fuente, Iñaki (+) eta Pili Mitxelena, Pili eta Antonino Astiasuinzarra; bilobak, birlobak, anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **BIHAR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, ZIZUR NAGUSIKO SAN ANDRES** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Irubide Jatetxea-Hernanin, 2019ko urtarrilaren 6an

OHARRAK: Gorputza Hernaniko hilerria eramango dute San Alberto Ehorzketa Tanatoriotik (telefonoa: 948 27 57 11) BIHAR, ASTELEHENA goizeko 10:00etan.

DATORREN IGANDEAN, hilak 13, goizeko **HAMARRETAN, EREÑOTZUKO SAN ANTONIO** parrokian, meza bat ospatuko da bere animaren alde.

† **JOSEFA IRAOLA MINER**
ZUK EMANDAKO MAITASUNA GUREKIN GELDITUKO DA

BILOBAK: Ibon eta Izaskun, Aitor, Ainara eta Antxon, Iñigo eta Sharon, Mikel eta Miguel, Ainhoa eta Ion, Gorka eta Haizea, Txomin; BIRLOBAK: Eneritz, June, Jon, Noa, Hodei, Mikel.

Irubide Jatetxea-Hernanin, 2019ko urtarrilaren 6an

JUAN MARI MAIZKURRENA URKIZU
Beti gogoan

HERNANIKO PRESO ETA IHESLARIEN SENIDE ETA LAGUNAK
Hernanin, 2019ko urtarrilaren 6an

JUAN MARI MAIZKURRENA URKIZU
Samindurik dugu bihotza motel bizitzaren garra. Gaur faltan somatzen dugu zuk emandako indarra.

IRASTORZA-EIZMENDI FAMILIA
Hernanin, 2019ko urtarrilaren 6an

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.



Hernaniko zero garbia
Gaur (urtarrilaren 3an) goizeko herriko haize egokitua. Hau 180 milloi euroko inbertsioa egin baino lehen. Hernani eta

inguruko herritarren osasunean pentsatu ote dute?

Mikel Salaberria Otxotorena

JUAN MARI MAIZKURRENA URKIZU
Alperrik esan dute joan zarela, zu beti gure baitan izango bai zera.

JOSE KRUZ, JONE ETA IZASKUN; MARTIN, AITOR ETA NÉREA
Hernanin, 2019ko urtarrilaren 6an

JUAN MARI MAIZKURRENA URKIZU
Zurekin pasa ditugun momentu goxoak gure oroimenean geldituko dira betirako. Betiko bakea eta zoriona heldu da zure barrenera.

ZINKO-ENEAKO KOADRILA
Hernanin, 2019ko urtarrilaren 6an

JUAN MARI MAIZKURRENA URKIZU
Agur eta ohore, Juan Mari

HERNANIKO EZKER ABERTZALEA
Hernanin, 2019ko urtarrilaren 6an

JUAN MARI MAIZKURRENA URKIZU
Ixiltasunean izan dira zure lana eta bizitza, beti izango zara gure oroimenean eta bihotzean.

LUJANBIO-OLANO SENIDEAK
Hernanin, 2019ko urtarrilaren 6an

IRAGARKI MERKEAK

Esperientziadun andreak lan egingo luke adinekoak zaindu edota lagun egiten eta garbitasunean. Orduetgia: 11:30-17:00. Deitu: 654 122 548

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)